

HERRI MUGA: "HELBURUA ATHLETIC ERMURA HURBILTZEA"

Ermuko Athletic-en aldeko zaletasunaren baitatik, Herri Muga deritzon lagunartea sortu da. Azken hilabeteotan, beste hainbat lagunekin batera buru-belarri diharduen Jabi Luarizaristi lagunartearen lehendakariordearen arabera, Athletic Ermura hurbildu beharra dago, gure herriko zaletasuna handia baita. Besteak beste, horixe da erakunde berriaren helburua. Herri Muga lagunarte sortu berriak oraingoz 30 bazkide inguru biltzen ditu bere baitan. Horietatik zortzik zuzendaritza osatzen dute: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta lau mahaikide. Dena dela, pixkanaka-pixkanaka kopurua igotzea espero dute.

Jabiren arabera, "beste futbol lagunarte batek eskaini ditzakeen zerbitzuak eskaini nahi ditugu: partidua ikustera joateko autobusak antolatu, sarrerak astero enkargatu, bazkide izateagatik lehentasuna baituzu, gure herriko neska-mutikoak Lezamara eraman, eta beraientzako



Hauek dira lagunarte honen Athleticzaleetako batzuk.

ekintzak proposatu...".

Bazen ordua!

Lehen bilerak 1996ko urrian hasi ziren Truck tabernan. Bildutakoen artean garbi ikusten zuten Ermuan taldea aurrera ateratzea bidegarria izan zitekeela.

Ildo horretatik, azken hilabeteotan eztabaidan eta elkarlanean arituz, lehen urratsak eman ondoren

sortu da Herri-Muga futbol lagunartea.

Jabi Luarizaristiren arabera "Herri Muga sortu dugu, batetik, herriaren zaletasun handia ikusten gurelako, eta bestetik, Athletic-ek datorren urtean 100 urte beteko dituen urtean ospatzeko zerbait egin behar eta horretarako modurik hoberena lagunartea sortzea zela uste gurelako".

ESTHER ETXANIZ

18

DULCILANDIA

- ✓ Gozokiak
- ✓ Fruitu sikuak
- ✓ Urtebetetze opariak

Zubiaurre, 14

ERMUA

AHOLKULARITZA FISKAL eta LEGALA

URIARTE IRAEGUI, S.L.

Valdespinako Markesa, 14 - behea
Telefona: 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

DIETETIKA ZENTROA

HERBODIETETIKA ● KOSMETIKA NATURALA
SENDABELARRAK ● ERREGIMENeko ELIKAGAIK

Izelaieta, 10 eta Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13 (Etxekoa) 17 01 52